


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Txirrindulari Eskola, denboraldi berrirako prest

1984tik harrobia lantzen ari da Andoaingo Txirrindulari Eskola. Hilabete honetan ekingo diote errepideko denboraldi berriari / 13

Kiroldegiaren eraikuntza lanak, esleitura

Urnietako Udal Kiroldegi berria eraikitzeko lanak Imaz enpresari esleitu zaizkio. Lizitazioak zehazten zuena baina bi milioi euro gutxiagoko kostua izango du / 7



Larrea: "Egungo gizarteak gaitz handia du: ez dio gorputzari atsedeen hartzen uzten" / 2-3



Helburu solidarioa duen ikuskizuna eta txokolate jatea, ostiral honetan Urnietako Saroben / 7



Puska biltzaileen eguna igarota, Kaldereroak iristear dira Andoaingo herrigunera / 11, 16



Nei
Muebles Kit Altzariak

iturbe
SUKALDEA, ITXEA & DEKORAZIOA

UPER PREZIOAK

ALTZARIAREN AZOKAN, URNIETAN

Otsailaren 10etik 16ra

Ordutegia: 9:30-13:00 / 16:00-19:30
IGANDEAN, 10:00etatik 14:00etara.

JARRAI GAITZAZU!

Igarategi Industrialea: 70
(Herrutiarriko tren-geltokiaren errepidea) 20130 URNIETA

M. 688 632 191 T. 943 552 750

Andoni Urbistondo URNIETA

Azkonobieta baserriko alaba da Garbiñe Larrea, *Azkonita* urnietarrez (43 urte). Abokatu izateko ikasi zuen, baina Kontseiluan lanean ordu asko pasa eta arnas pixka bat hartzea erabaki zuen. Orduan eman zion azken lema kolpea bere bizitzari: naturopata kolegiatua da. Naturopata, ez petrikilo, edo antzekorik, ogibide hori arautzearen aldeko jarrerara sutsua baitu. Kontsulta ematen du Donostia, Azpeitia eta Ondarroan, eta hitzaldi mordoa ere bai. Urnietan, baina, ez da oso ezaguna. Kanean arrotz samar sentitu izan omen da betidanik. ETB1 kateko *Txoriene* saioan ikusi zutelako ezagutu zuten askok. "Urnietan eta inguruetan Aiurriko elkarrizketa honek ezagunago egingo nau batzuentzat".

Nor da Garbiñe Larrea?

Azkonobieta baserriko alaba, Inazioren alaba batzuentzat eta Josebaren arreba beste askorentzat.

Ogibidez, zer zara?

Gaztetan ez neukan garbi zer ikasi. Zuzenbidea ikasi nuen, eta bukatu ere bai, hasitako gauzak bukatzea gustatzen zaidalako. Ikasketak bukatuta urte gogor batzuk pasa nituen, alergiakin zerikusia duten osasun arazo serioekin. Aita ere orduan hil zitzaigun. Botika asko hartu behar izan nituen, horren ondorioak jasan... Han eta hemen bilatzen hasi nintzen, nire galdera askoren erantzuna baserrian bertan neukala jabetzeko. Amona, aita, senda belarrekin arituak ziren. Neuretzat ikasteko asmo soilarekin hasi nintzen, profesional izateko batere asmorik gabe. Gure anaiak dioen moduan, batzuk eskiatzen gastatzen dute dirua, besteek rallyetan, berak zaldiekin, eta nik kurtsoak egiten. Medikuntza egitea ere pasa zitzaidan burutik Zuzenbidea bukatu berri izan zen, eta beste ikasketa prozesu luze bati ekiteari ezetz esan nion.

Naturopata bilakatu zaren arte.

Bai. Jendeak eskatuta hasi nintzen ikasten eta ikasten. Jaione Iturbek esan zidan, aurrena, berak herrian zeukan lokalean tokitxo egingo zidala, eta hala hasi nintzen. Pixkanaka lan edo zaletasun hori pisua hartzen hasi zen, eta erabaki bat hartzeko unea iritsi. Kontseiluan nengoen lanean, lan finko bat, militantzia, euskalgintza, 10-11 ordu egunero...



Naturopata kolegiatua da Garbiñe Larrea urnietarra. AIURRI

"Botika onenak gure inguruan eta gure barruan daude"

GARBIÑE LARREA URNIETARRA, NATUROPATA KOLEGIATUA

Naturopata ogibidez, medikuntza ofiziala eta tradizionala uztartzearen aldekoa da. Arbasoak sendabelarrekin moldatzen ziren bitartean, egun botiken menpe bizi gara

Ainara De Miguel Ikasmin akademiakoak proposatu zidan, ukenduekin lanean hasteko, bere lokalean taldetxo bat sortzeko, eta taldea egin zen. Aurrena tal-

de bat, gero beste bat... San Juan ukendua, hortzetako pasta nola egin, xaboia, senda belarren erabilera... Norberak behar dituen gauzak bere kabuz egiten irakas-

tea zen erronka, baserrian betidanik egin izan den moduan. Baserriko mentalitatea daukat handia. Udan oporretara joaten banaiz, kamamila bezalako sen-

dabelarren momentua pasa egingo zaidala, eta ezin izango ditudala bildu pentsatzen dut, ez naiz lasai egoten. Eta kamamila ez da nire zain egongo Adarrako zabalean.

Autodidakta izan zara, erabat.

Bai, baina horretaz gain ikertu egin dut asko. Aiton-amonak ez zeuden alfabetatuak, agrafoak ziren, baina jakintsuak baserriko kontuetan. Amonak, beste askok egin izan duten bezala, sendabelarrak zenbaki bakoititan batzen zituen. Bikoitietan inoiz ez. Fitoterapia ikasi nuen, Zuzenbidea adina bai.

Ayurveda Indiako medikuntza tradizionala ere ikasi zenuen.

Bai. Haiek zera diote, norberak dagoen lur eremuan bilatu behar duela sendatzeko behar duena, ez duela zertan Indiara joan behar, senda belarren bila. Hori porrota litzateke eurentzat. Ayurveda metodoarekin gaitza nola antzeman eta sendabelarrekin nola tratatu bilatzen da. Baserrian erabiltzen zen metodoaren antzekoa da.

Eta zer erakutsi dizu baserriko metodo horrek?

Paperean ikasitakoarekin baka-rrik jarduten duena zaharkitua geratzen dela. Mihurak ze propietate dituen aztertzen ari dira, minbizirako, tentsiorako, pozoia nola kendu... Baina sagarrondoaren adarreko mihura hilda dagoen zuhaitzaren adar kontrako mihura baino aberatsagoa da. Hori ez da paperean agertzen. Gillue herrira, Huescako mendialdera joaten naiz sarri, bertan lan egiteko aukera eman zidatelako. Hango zaharrek duten jakinduria harritzeko modukoa da, bertako artzainek zera diote: "Hatzak sobratzen zaizkit, osasuntsu egoteko behar ditudan senda belarrak edukitzeko". Bada sendabelarra, tomillo edo ezkaia- ren senidea, ajedrea du izen ofiziala. Eurek sabiduria deitzen diote, landareak jakintza daukalako.

Senda belarrak ohikoak izan dira oinazeak murrizteko: enplastoak, berbenak eta beste.

Bai, oinazeak eta gaiztotutako zauriak zaintzeko erremedio asko dago. Eta erremediorik ez dagoenako ere badaude "errukizko erremedioa" deitzen zitzaienak, erremedio tradizionalak direnak. Azkenetan dagoenari, oinazeak jota dagoenari laguntzeko landareak badaude; pertsonari heriotza gozoa emango diona. Bai-

na horiek ez dira saltzen, eta liburuetan ere horiei buruzko informazio fidagarria aurkitzeko nahikoa lan.

Zein da zure lan jarduna?

Ikasminen ikastaroak ematen hasi ondoren, Zestoan aritu nintzen hiru urtez. Eta handik Mutrikura. Azkoitia, Donostian, eta Gilluen ari naiz orain ikastaroak ematen. Kontsultan belardendatan aritzen naiz; Azpeitia, Donostia eta Ondarroan.

Zein teknika erabiltzen duzu?

Iridiologia, begiak aztertzeke teknika erabiltzen dut. Joan den urtean analitikak interpretatzeko ikastaro bat ere egin nuen.

Medikuntza ofizialak eta tradizionalkak talka egiten dute, ezta?

Medikuntza integratiboaren aldekoa naiz. Ofiziala eta tradizionala uztartzen dituen. Naturopata garenok beldurra badugu, eta zuhurtziaz aritu behar dugu lanean. Zein medikurekin tratatzen duzun, egoera asko aldatzen da. Askok medikuntza tradizionala ikusi ere ezin dute egin. Karmelo Bizkarra medikuak, aldiz, limoi ura emango dizu aurrena, eta ondoren botika. Eta mediku ofiziala da! Medikuntza ofiziala eta farmazia-industriarentzat osasunaren monopolioa dago jokoan, diru asko, medikuek presio handia dute. Egoera hau ulertzeko badut adibide on bat. Ikasleek eskatuta, hitzaldi bat ematera joan behar dut Leioara, medikuntza fakultatera, Herri Unibertsitatea deitzen diotenaren barruan hitzaldia ematera, otsailaren 19an. Beno, ba iaz ere eman nuen hitzaldia, baina ez zuten publizitaterik egin, beldurra zutelako ez ote zuten betorik jarriko, ni naturopata nintzelako. EHU-n bada zientzia dibulgateko elkarte indartsu bat, eta ikasketak ofizialetatik kanpoko ezer ere ez du onartzen. 400 ikasle elkartu ziren, eta aurten berriz egingo da. Ikasleek jakin-mina dute, buruz irekiak dira oso, galdera mordoa egin zizkidaten. Beraiek ikasten ari diren horretaz aparte beste zerbait eman behar zaiela esaten zidaten, baina batzuri jasanezina egiten zaie. Defentsiban, edo erasoan daude.

Gaixo al gaude? Gaixo al dago gizartea? Eta bagaude zer? Berezkoa da. Ajea edukitzea bezala. Badaude loteria beltzak, onartzen gogorrek direnak, eta halako kasuetan umildu beste erremediorik ez daukagu, ez baikara dena sendatzeke gai. Gure bizilaguna eta anaiatzat genuena, Mikel Garaialde, 29 urterekin hil zen minbiziz duela bi urte, eta hala-koak onartu beharra gogorra da oso. Egungo gizarteak gaitz handi hori du: ez dio gorputzari atsedean hartzen uzten, exigentzia pilo bat jartzen dizkio eta zaindu batere ez... Autoari mantenua egiten zaio, olio eta filtroak aldatu. Gutako zenbatak aldatzen dizkio olio eta filtroak gorputzari? Baserri askotan, ez aspaldi, odol garbiketarako egiten ziren udaberrian, pixa belarra hartu udazkenean...



"Behar dut Azkonobietara joatea, inguruak ikustea. Ni bertakoa naiz, ez Urnietako kalekoa". AIURRI

Lurraren seme-alabak garela, alegia. Noski. Geroz eta lur gutxiago. Lurra desjabetu eta txikitu egin digute, fumigatu egiten da etengabe, zabortege erraldoiak eraiki... Zikin honetara egokitzen jakin beharko dugu. Hiroshiman arratoiak erradiaziora egokitu ziren bakarrak izan ziren, eta guk ere hartatik ikasi beharra daukagu. Toxikotasun maila batekin bizitzeko ikasi beharko dugu, derrigor.

Gauzak, gaixotasunak kasualitatez ez direla gertatzen pentsatzen dute/dugu askok, arrazoi batengatik gertatzen direla. Egia ote?

"EGUNGO GIZARTEAK GAITZ HANDIA DU: EZ DIO GORPUTZARI ATSEDEN HARTZEN UZTEN"

Hala dirudi, gauzak ez direla kasualitatez gertatzen. Igual guk geuk ere laguntzen dugu, oharkabea. Nik artoari izandako alergia batekin ikasi nuen hori, nahiz eta artoa lasai jaten nuen, kalte egiten zidala jakin gabe. Krisi gogor bat izan nuen eta talo hura ikertu ondoren irin transgenikoa zela jakin genuen. Nire ustez osasuna kapital bat da, bakoitza bere kapitalarekin jaio da eta bizitzan gastatuz doana. Batzuk, kapital oso txikiarekin jaiotzen dira eta bizitza zailagoa edukitzen dute. Nik uste gure etxean kapital gutxikoak izan garela. Zer egin? Kapital txiki hori zaindu, edo behintzat ez kaltetu. Nola? Zainduz, elikadurari erreparatuz, adibidez.

Botikek, farmaziek indar handia dute. Haiekiko menpekotasuna beldurtzeko modukoa da.

Botiken menpeko gara, eta beste asko botikek sortzen dituzten mozkinen menpekoak. Beldurra industria erraldoia da. Mina gauza serioa da, eta joera botikara jotzea da. Gaixotzea, urtero katarro pare bat pasatzea ez da berez txarra, mintzak berak ere berri egiten dira eta katarroekin.

"GAIXOTZEA, URTERO KATARRO PARE BAT PASATZEA, EZ DA BEREZ TXARRA"

Zure figurak, naturopatak, mesfidantzak sortzen al du jendartearen?

Bai. Naturopata garenok bere garaian homosexualak zirenak bezalaxe ibili behar izan dugu, erdi ezkutuan, atentziorik eman gabe. Horregatik, niri sorgintxo, petrikilo edo kurandero deitzea ez zait gustatzen. Gure jarduna ofizialdu egin nahi dugulako, naturopata ogibide izatea. Lanbide Hezkuntza edo Gradu ikasketak arautu behar lirateke, Alemanian, Portugalen edo Suitzan egiten den bezala. Espainian mentalitatea oso atzerakoa dela esango nuke. Berlinen Charity izeneko erietxe unibertsitario eta publiko garrantzitsuenetakoan medikuntza ofiziala eta tradizionala uztartzen dituzte. Hemen zergatik ez? Erregulazioa eskatzen dugu, ez besterik.

Belardendak ere modan daude.

Bai. Negozio ikaragarria da eta kritiko samarra naiz. Belar dendak irekitzeko beste baldintza batzuk eskatuko nituzke, gaur egun langileen formazioan hutsuneak daudelako; ez dago derriortutako ikasketarik, hau da, baldintza berak bete behar dira zapata edo belar denda bat irekitzeko. Belar dendetan, sarri,

"GURE JARDUNA OFIZIALDU EGIN NAHI DUGU, NATUROPATA OGIBIDE MODURA AITORTUZ"

hornitzaileek emandako informazioarekin hasten dira lanean, eta ikasitako jendea egotea behar da, bestelako kalterik ez eragiteko. Gainera, belardendara joaten dena botikak hartzen ari den bezeroa da askotan, eta horrek inkompatibilitateak eragiten ditu. **Azpeitian bizi zara, baina astean bitan etortzen zara baserrira.**

Behar dut Azkonobietara joatea, inguruak ikustea. Ni bertakoa naiz, ez Urnietako kalekoa. Ergoien auzoa eta Azkonobietatik gorako auzoa eta auzotarrak ezagutzen ditut, baina kaletarrak ez hainbeste. Egape ikastolako garaietatik oroitzen on askorik ez daukat, horrek ere badu zerikusia kalearekiko distantzia horretan. Nik uste ez nintzela ondo egokitu. Baserritar moduan kaletarrek baztertu egiten gintuztela esango nuke, badakizu, baserritarrok usain txarra botatzen genuela eta horrelakoak gure baserrian behirik ez zegoenean!-. Graduak daude, batzuk gehiago eta besteek gutxiago, baina nik uste denok jasan genuela gaur egun *bullying* deitzen zaion hori. Niretzat Donostiara, Santo Tomas lizeora joatea halako liberazioa izan zen, hangoentzat ere gu herrietatik joandako jende eskasa ginen arren.

Non ematen duzu kontsulta?

Azpeitiko Kiribil, Donostiako Benta Berri auzoko Naturetze eta Ondarroako ID belar dendatan. Ondarroan aritzen naiz oso gustura, Berriatuako baserriarekin eta. Kaminazpi auzoan dago belar denda, eta han luizi handia gertatu zen 2016an. Antsietatea eta bestelako osasun arazoak izan dituen jende askorekin egon behar izan dut geroztik. Han denok ikasi genuen asko larrialdi egoera hartatik.

Ikastaroak ematen eta aritzen zara.

Bai, elkarte pribatuarekin batez ere. Erakunde publikoekin ez hainbeste, papergintzak ordu asko jaten dizkidalako. Hitzaldiak ere ematen ditut. Aurrekoan Jon Garmendia *Txuria*-rekin hitz egin nuen, Ipar Euskal Herrian hitzaldiren bat eskaintzeko, handik ere idatzi didatelako jakin-mina azalduz. Aurten bigarren denboraldia egingo dut ETB-1eko *Txoriene* saioan kolaboratzen, eta jende askok horretatik ezagutzen nau. Ea ba honen ondoren urnietar edo Beterriko herritar gehiagorengana iristen naizen!

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Tokiko albisteak

Tokiko hedabideen irismenari buruzko datu argigarria jaso dugu Tokikom tokiko hedabideen federaziotik. 2018tik 2019ra, tokiko euskarazko hedabideen trafikoa %35 hazi zen. Hazkunde handia da, sektoreko trafikorearen hazkunde denbora tarte berean %19koa izan denean. Erredakzio taldearen lana balioan jartzeko garaia da. Urte osoan eta egunero zabalik dagoen ataria da Aiurri.eus webgunea. Har dezagun aurreko asteburua, adibide gisa. Piano jaialdiaren jarraipena egin zen, bideoak eta argazkiak larunbatean zein igandean argitara emanez. Puska biltzearen irudiak eta bideoak eskaini ziren, larunbatean zehar. Pagazaurtunduaren omenez bi ekitaldi antolatu ziren, eta Aiurri bietan izan zen. Herriarra etengabeko informazio jatoria ohitu dugu, horren jakitun gara: 10 bisitalditik 7 mugikorretatik egin ziren, iaz.

2019ko albiste irakurrien rankinga ere egin du Tokikomek. Tokiko hedabide guztiak kontutan hartuta, irakurriena "Meltxor eta Gaspar Errege Magoen gutuna Baltasarri" Aiurri.eus gunean argitaratutakoa izan zen. Poz berezia hartu dut, 2019ko urtarilaren 5ean eta 6an Andoainin ekaitza digital bortitza pairatu genuelako. Gutun hori 19:00ak aldera argitatu genuen, eta iluntzean Aiurriko webgunetik hartutako albiste ETBko albistegietan ikusgai zegoen. Tokikoa gertaera globala bilakatuta, Aiurri eta kabalgataren antolatzaileek egoera bideratzen asmatu genuen, gertaera testuinguruan ipiniz eta Baltasarri sareetan eman ez zitzaion duintasuna eskainiz. Lana ondo egiten ahalegintzea eta saria jasotzea ez da maiz errepikatzen den gertaera. Baina gertatzen denean esan beharra dago, eta poza adierazi.



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Zorionak Andoain

2019an errefusa asko jaitsi da andoaindarron konpromisoari esker, baita bereziki errefusarentzako edukiontzi gris txipduna ezartzearen ondorioz ere. Datuetan sartuta, errefusean 1.000.000 kg baino gehiagoko jaitziera eman da, organikoa 500.000 kg inguru

igo. Ontzi arinak ia 150.000 kg gehiago gehitu dira eta beste frakzioetan ere igoerak eman dira, oro har. Hala ere, gaikako bilketa ez atzera ez aurrera dabil azken hilabeteetan, %66aren inguruan. Urteko batazbestekoa %64an kokatu

da, 2018tik 2019ra 20 puntuko igoera lortuz.

Datu ona izanagatik ere, ezin dugu konformatu. Datu hori hobetu dezakegu, eta %70a erraz gainditu, Andoaingo Itunean jasotako neurriak abian jarri ezker. Andoain jasagarriago baten alde!

Andoain: Etxebizitzetako eta merkatalguneetako hondakinen sorreraren bilakaera (2015-2019)

Materia	2015	2016	2017	2018	2019
Errefusa	3.394.180	3.175.680	2.671.840	2.541.290	1.540.550
Organikoa	0	138.375	578.990	651.505	1.111.122
Ontzi arinak	442.140	306.509	355.357	366.363	514.744
Papera	588.034	431.829	427.623	424.148	485.035
Kartoia	85.220	87.751	109.601	114.295	101.200
Beira	400.840	396.799	405.507	431.641	444.618
Arropa	65.123	56.186	75.591	59.712	80.326
Landare olioia	13.010	14.024	8.810	9.267	9.397



andoaINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
disenua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



ERROITZ



ALIATUAK

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlitasunerako Zuzendaritza


ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Kantu liburuxka 2 0 2 0





IRITZIA

ANDONI URBISTONDO

URNIETA

Futbola

XXI. mendeko droga, batzuentzat. Jendartearen ispilu, besteentzat. Eguneroko arazoei ihesbidea bilatzeko aukera errazena, askorentzat. Eta zergatik ukatu? Futbolak badu norbanakoa, gizabanakoa transformatzeko gaitasuna. Oso indartsua da. Norberaren taldearen emaitzaren baitan jende askoren aldartea aldatzeko gaitasuna duen kirol diziplina bati bere boterea aitortu behar zaio.

Nik gustuko dut futbola. Nuen, iraganean. Ikaragarri: Kintielak, SER irrati kateko Carrusel deportivo famatu haiek... baina nekatu ere egin nintzen. Kirol kazetaria bazara, eta egunero kirol kontuei bueltaka, nekatu ere egiten zara. Nekatu, zure kirol zaletasuna dibertsifikatzeko, futbola ez den beste aisi aukera batzuei lehentasuna emateko. Egun, mendiak, sagardotegiak edota zineak lehentasuna dute nire aisi hautuan. Baina ni ere jausten naiz futbolaren armiarma sarean noizean behin.

Jausi nintzen Euskadi Irratiko erredakzioan, pasa den ostegunean, Realak Real Madril 3-4 menderatu zuenean, eta Athletic-ek Bartzelona azken unean menderatu zuenean. Idatzi nuen txio bat, asko pozten nintzela bi euskal talde Sevillako Kopako finala jokatzeko bidean zeudelako. Nire iritzia jakina da, aspaldi. Realekoa naiz, baina ez naiz beste euskal taldeen porrotekin pozten. Euskal jendarteak daukan gaixotasun handiena da, hori, niretzat, probintzianismo gordina da. Osasuna eta Alaves ere gustatzen zaizkit, eta Athletic-i dagokionez, esandakoa. Euskal Herrikoak ez diren taldeen

**PROBINTZIANISMO
GORDINA DA
JENDARTEAK
DEN GAIXOTASUN
HANDIENA**

aurka aritzen denean, irabaztea nahi dut.

Kopa, Sevilla. Ostatua eta tren billeteak hartu ditut. Beldurra ematen dit konpainiak... eta konpainiaren herrikideak. Mondragoe-ko kasta asko Sevillan izango omen dira... Sarrerak lortzeko mesede eskean hasi gara, eta norbait konturatu ez bada, hemen mezua argi: bi sarrera behar ditugu bai edo bai. Lortuko ez bagenu ere lasai, buruko minik ez, zaleen karpan egongo da, zer egin, eta zer ospatu...

Igandea emozio askoko eguna izan zen zale txuri urdinentzat. Emakumeen taldeak Superkopako finala jokatu zuen Barça ahaltsuaren aurka, eta atsekabetuta bueltatu behar izan zuten etxera, 1-10 galduta. Atsekabetuta bai, baina errendituta ez. Finalak, jokatzeko dituenak galtzen dituela esan zuen norbaitek. Ba hori. Bartzelona iritsi ezina dela eta Realari merezi ez zuen zigorra eman ziola diotenekin ados ez... Errugbian egiten den bezala, aurkaria errespetatzeko modu onena haien aurka bete-betean jokatzeko da. Ziur nago Nahikari Garciak, Realeko kapitainak, bere taldeak Barçaren gaitasuna izango balu, antzera egingo lukeela.

Salamancako finaleko beste irudi batekin geratu nahi nuke, dena den. Lehen minutuan jokalariek egin zuten protesta hitzarmen justu bat eskatzeko. Langileak dira, profesionalak, baldintza duinak behar, nahi eta merezi dituzte. Eta klubek zeresan handia dute helburu hori gauzatzeko bidean. Indarra, emakume futbolariarentzat.

**AURKARIA
ERRESPETATZEKO
MODU ONENA HAIEN
AURKA BETE-BETEAN
JOKATZEA DA**

Diaporama lehiaketa

Otsaileko hiru ostegunetan Diaporama lehiaketan aukeratutako lanak ezagutzeko aukera izango da. Ostegunero hitzordua jarrita dago, arratsaldeko 18:30ean hasita Lekaion. Nahikari Sanchezek emango dio hasiera, ostegun honetan. Argazkian, iazko hautagai izan zen Manex Alday Azore uharteetara egindako bidaian.



MANEX ALDAY

Aparkatu ezinik

Mugikortasunaren alorrean aldaketa handia emango da Etenetako eta San Juan kalea lotzen dituen igogailua eraikitzen dutenean. Egun hauetan dorre elektrikoa aldatzen ari dira. Lanak beste bi astez luzatuko dira, eta epe horretan ezingo da eremu horretan dagoen aparkalekua erabili.



AIURRI

DYako ikastaroak

Urnietan zehar DYak Hernanin eskainiko dituen ikastaroen afitxak jarrita daude. Ostiral honetan lehen sorospenei buruzko doako ikastaroa antolatu dute, iluntzeko 19:00tan hasiko dena. Ikastaroaren iraupena bi ordukoa izango da. Larunbatean, berriz, suspertze tailerra familian izenekoa antolatu dute. Informazioa: 943 464 622 / www.DYAgipuzkoa.com.

Jauregiren liburua salgai

Ainhua Jauregik duela gutxi liburua idatzi du, Aiurri aurreko asteetan argitaratu zenez. Lehenik plataforma digitaletan salgai ipini zen. Egun hauetan, berriz, liburu fisikoa dendetara iritsi da. Eta, besteak beste, Esas pequeñas cosas Urnietako dendan salgai dagoela jakinarazi du egileak. Minbiziari aurre egitearen kontakizuna da liburuaren hari nagusia.

Posta bidezko botoa

EAEko hauteskundeak deitu eta berehala, Urnietako PSE-EEk posta bidezko botoa egiteko aukera zabaldu du. Santa Leokadia 3 kalean dagoen Herriko Etxean informazioa emango dute, martxoaren 26ra bitarte. Ordutegia, asteartetik igandera: 10:00-20:00. Informazio osoa ematen ari dira honako telefono zenbakian: 943 550 542.

Andoaingo piano jaialdian

Lourdes Iriondo musika eskolako ikasle talde batek Andoaingo Piano Jaialdi garrantzitsuan hartu du parte. Eskolakoek adierazi dutenez, "lan bikaina burutu dute gure ordezkari guztiek, urrezko eta zilarrezko dominak lortuz. Gainera primeran pasa dute, esperientziaren balorazio positiboa eginez". Jaialdian Euskal Herri osoko ia 700 ikaslekin parte hartu dute.



DYA

Ikuskizun solidarioa

Ostiral honetan "Super H hontz zuriaren lurraldean" ipuina taula gainera eramango dute Magale ikastetxeko ikasleek. Bi saio eskainiko dituzte Sarobe antzokian. Saio bakoitzaren ostean txokolate jate solidarioa izango da, euro batean

Jon Ander Ubeda URNIETA

Minbizia pairatu duten haurren errealitatea bistaratzeko lan handia egiten ari da Super H elkarte, Urnietan zein Gipuzkoa mailan. Sentsibilizazio lan horretan, askoren artean, unitate didaktikoa argitaratu zuten. Duela bi hilabete, Magale ikastetxeko DBH2 mailako ikasleek unitate horren lanketa egiteari ekin zioten. Elkartasuna, ikerkuntza... lanketa hori egin eta gero, "Super H hontz zuriaren lurraldean" ipuina irakurtzeari ekin zioten. Ipuinaren irakurketak ikuskizuna antolatzeke aukera ekarri zuen, eta azken asteotan ekimen betean ari dira dozenaka ikasle. Irakasleen laguntza ere ezinbestekoa izaten ari da. Aiurrik taula gainera igoko diren bi ikasleekin hitz egiteko aukera izan du.

Zein da antzezlanean jokatu du-zuen papera?

Eneko Corbelle. Ni alga naiz.

June Urdangarin. Eta ni izarra.

Zer moduzkoa izaten ari da antzez-lana prestatzeko esperientzia?

Eneko Corbelle. Ondo doa, gustuko dudana esperientzia da. Iaz ere "El Rey Leon" antzezlanean parte hartu nuen.

June Urdangarin. Oso esperientzia ona izaten ari da, eta oso dibertigarria. Guraso asko etorriko direla espero dugu, eta ziur ondo pasako dugula.

Jendaurrean aritzeak urduritasuna sortzen al du zuengan?



Eneko Corbelle eta June Urdangarin ikuskizuneko partaideak dira. AIURRI

June Urdangarin. Ez, bereziki. Entseguetatik prest goaz. Urduritasuna sortzen da, baina ez asko.

Eneko Corbelle. Ondo pasa ohi dut, ez dut lotsarik sentitzen.

Antzerkigintza da zuen zaletasuna?

Eneko Corbelle. Futbola eta, oro har, kirola nahiago ditut.

June Urdangarin. Nire kasuan, futbola eta marrazketa.

Zer dela eta orduan antzezlanean parte hartzeko asmoa?

Eneko Corbelle. Jendeak minbi-ziarekin bizitzea zer den uler-

tzeke baliagarria delako. Minbizia oso gauza serioa da.

Gurasoek eta ikaskideek antzez-lana ikustean zer sentitzea nahiko zenukete?

June Urdangarin. Jendeak ulertu behar du pertsona horien errealitatea ez dela batere erraza.

Otsailak 14, ostirala

17:30, 19:00 Sarobe

Sarrerak Magaleko leihatilan. Saio bakoitzaren ondoren, txokolate jate solidarioa euro lean.



Kiroldegi berriaren instalakuntzaren irudi muntaia. UDALA

Miguel Imaz enpresak eraikiko du kiroldegi berria

Lizitazio obra ia zortzi milioi eurotan zegoen, eta azkenean bi milioi gutxiago erabiliko direla adierazi dute

Erredakzioa URNIETA

Urnietako kiroldegia eraberritzeko lanak berehala hasiko direla iragarri du Udalak, otsailaren 6an lehiaketa irabazi zuen Miguel Imaz Constructoresekin obra kontratua sinatu eta gero.

Udaletik zabalduetako prentsa oharrean jasotako datuaren arabera, "lanak aurreikusitakoaren arabera garatzen badira, erreforma gutxi gorabehera bi urte barru amaituko da".

Aurreikusitakoa baino merkeago

Badirudi ere obra aurreikusitakoa baino askoz merkeago aterako zaiola Udalari, "Obraren lehiaketaren lizitazio oinarria 7.998.631 eurokoa zen, eta Miguel Imazen proposamena 5.759.014 eurokoa da. Horrek esan nahi du hasiera batean aurreikusita zuena baino bi milioi euro pasatxo aurreztuko dituela Udalak".

Modulu aurrefabrikatu muntaketa aurrera doa

Kiroldegiko erabiltzaileentzat ezaguna denez, eraberritze lanek iraun bitartean urtean zehar eskaintzen diren jardueri eusteko saiakera egingo da. Horretarako, aurrera doaz kiroldegi gaineko aparkalekuan kokatu dituzten modulu aurrefabrikatu muntaketa lanak eta baita instalakuntza horietan ezarri beharreko ur, gas eta argindar hornidura lanak ere.

Gimnasioko eta erabilera anitzeko aretoetako tresneria lekuz aldatu beharko dituzte.

**LIZITAZIO OBRA
7.998.631 EUROKOA
ZEN, ETA AZKENEAN
5.759.014 EUROTAN
EGINGO DELA DIRUDI**

Laster abiatuko dira eraberritze lanak, Jubilatuen egoitzan

Lanak bi fase ezberdinetan burutuko dira. Eraikinaren kanpoaldea eraberritzen hasiko dira hurrengo asteetan

Erredakzioa URNIETA

Eraberritzea "integrala" izango dela iragarri du Urnietako Udalak. Kanpoaldeko eraberritze lanei datozen egunetan ekingo diete. Eta kanpoaldeko lana amaituta, barnealdeko instala-

kuntzatan eraberritze gehiago egingo dituzte. Abiatzearen azalpena eman du Udalak, prentsa ohar bidez: "Obraren lehenengo zatia gaur egungo eskakizun termikoetarako egokitzeko baliagarria izango da.

Eraikinaren aurreko partean esku-hartuko da, kanpoaldean isolamendu termikoa jarritz eta uren filtrazioak deuseztatuz. Horrez gain, oraingo leihoen orde, eraginkoarragoak izango diren beltz koloreko berri batzuk ipiniko dira". Obra horren aurrekontua 371.234 eurokoa da. Lanak dagoeneko esleitura dauka, eta hurrengo asteetan hasiko dira.

Denda Berriko barnealdeko instalakuntzak berritzeari ekingo diote, ondoren.





Musikari bakoitzak jendaurrean eta epaimahaiaren aurrean jotzeko erronka gainditu behar zuen. Eta, ondoren, maila bakoitzeko sari banaketa ekitaldia iritsi zen. AIURRI

Urrezko domina antolatzaileei

Zapi laranja eta domina jantzita, ehunka musikari gazte ibili zen Andoainen. Deiadar elkarteak antolatutako Andoaingo Piano Jaialdiaren 15. edizioko protagonista nagusiak eurak izan ziren. Eta ez, bakarrik. Antolatzaile taldeak lan bikaina egiten jarraitzen baitu

Xabier Lasa ANDOAIN

Ainhua Aiertza aurkezleak antolatzaileen azken balorazioa egin zuen, igande arratsaldean antolatu zuten amaierako ekitaldian. Atzean geratu ziren lan handiko egunak, eta ostegunean hasi eta igandera bitarteko emanaldiak: "Iritsi gara amaierara. Asteburuan zehar bizi eta sentitutako une eta emozioak laburbiltzea ez da erraza, baina datuen bitartez egingo dugu. Hiru egunetako egitaraua: osatiralean Francisco Escudero Kontserbatorioko Orkestra Sin-

fonikoa; larunbatean 2019an Euskadiko Musikari Gazteen Lehiaketan piano modalitatean irabazi zuten Alaitz Artola eta Asier Pagazaurtunduren kontzertua. Eta gaur, Ludwing Van Beethoven sari berezia. eta amaierarako kontzertua. Asteburuari erreparatuz gero, bi piano emanaldi, 28 musikari gazteen saio, sei sari banaketa, eta, bakarlarik gisa, lau eskutara, sei eskutara eta Ludwing Van Beethoven sari berezian zuzenean aritu diren 676 pianojoleak".

Eskertza ematen jarraitu zuen, jarraian, "urtero bezala ederra eta zoragarria izan da musikari gazteak pianoa jotzen entzutea eta disfrutatzen ikustea. Eta hori guztia aurrera ateratzeko piano jaialdiaren familia kidetzat

"MUSIKARI GAZTEAK PIANO JOTZEN ENTZUTEA ETA GOZATZEN IKUSTEA ZORAGARRIA DA"

ditugun laguntzaileak gogorazi nahiko genituzke".

Ezinbestekoa izan da boluntarioen lana, eta azpimarragarria ere erakundeen aldetik jasotako babesa: "Andoaingo Udalari eskerrak Bastero erakina pianoaren hiruburu izan dadin eman dizkigun erraztasunagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Loidi piano etxeari, eta aldi berean, asteburuan zehar izan ditugun laguntzaile, informatikari, epaile, harrerakoei, ekitaldi aretoan aurkezle gisa aritu direnei, partehartzaileei eta euren familiei, Gurutze Gorriari, Eragineko teknikari taldeari eta jaialdiaren hedapenean lagundu diguten komunikabideei..."

Beethoven gogoan

Aurten, 15. Edizioa Ludwing Van Beethoven musikagile, piano jotzaile, orkestra zuzendari, eta musikari handia gogoan hartu dute, haren jaiotzaren 250. urteurrena ospatzen baita. Aiertzak gogoan hartu zuenez, "musikari bat omendu daitekeen modurik onenean egin dugu, bere obrak piano jotzaile gazteen eskutik entzunez".

Jaialdiaren helburua

Piano jotzaile gazteei jendeaurrean aritzeko aukera ematea da jaialdiaren helburuetakoa da, "beste dohain asko ere transmititzeko baliagarria da: emozioak partekatzea, segurtasuna, kontzentrazioa, auto-estimua, arreta, behaketa eta norbere ezagutza... Guzti horiek garatzeko orduan ale txiki bat jartzen saiatzen ari gara".

Jaialdia txalo artean amaitu zen. Txaloak jaso zituztenen artean, lerro hauetan aipaturikoa eta aitortza ondo merezita duten Myriam Ulanga, Txitxu Castro eta Ainhua Aiertza antolatzaile nagusiei.

Jaialdiaren berri Aiurri astekarian eta webgunean

Euskal Herri osoko ehunka musikari hurbildu ziren Andoainera. Partaide bakoitzak jaialdiaren egitaraua eta Aiurri astekariko ale bana jaso zituen. Bisitarientzat baliagarria izan zen antolatzaileek Aiurriko orrietan adierazitakoa, jaialdiaren ezagutza handiagoa izan zezaten. Aiurri.eus webgunetik, bestalde, jaialdiaren hainbat argazki eta bideo zabaldu dira.



Jaialdia ondo burutzeko hamaika lan egin behar dira. Ezinbestekoa izan zen antolatzaileen eta boluntarioen lana. AIURRI



Nere Baron, June Azpiroz eta Malen Ariztimuño finalistak Udal agintariekin batera. AIURRI



Leire Iturralde, Haizea Arnaiz, Maier Ortega eta Ioritz Jimenez Andoaingo musikari gazteak. AIURRI

Une gogoangarri ugari



Txalo zaparrada jaso zuten kontzertuaren amaieran. AIURRI

Francisco Escudero Kontserbatorioko Orkestra Ostiral iluntzean maila handiko emanaldia eskaini zuten. Andoaingo zaletuen gozamenerako, gainera, Luis Fracaren "Andoain" ereserkia estrainekoz orkestrara egokituta eskaini zuten.



Asier Pagazaurtundua eta Alaitz Artola musikari gazteak. AIURRI

Maila handiko musikari gazteak Euskadiko musikari gazten lehiaketako saridunak izan ziren, iazko edizioan. Gazteak izanagatik, maila bikaina erakutsi zuten. Ikusleak aho bete hortz utzi zituzten.



Musikari gazteak diploma eta domina jasotzeko garaian. AIURRI

Finalera iritsitako musikariak Igande arratsaldean jaialdiak amaierako ekitaldia antolatu zuen. Bertan elkartu ziren aurreko orduetan lehiaketan parte hartutako musikariak. Haietako batzuren piezak entzuteko aukera izan zen.



Nemesio Zatarain eta Maite Iruretagoiena Bertxin elkarteko egoitzan. AIURRI

Boluntario bila Bertxinen

Jubilatu eta pentsiodunen elkarteko bazkideek batzar orokorra ospatu zuten, joan zen urtarilaren 24an. 150 bazkide hurbildu ziren batzarrera. Aurrez, zuzendaritzak uzteko asmoa agertua zuen, baina batzarrean ez zen hautagaitzarik aurkeztu

Xabier Lasa ANDOAIN

Boluntariorik ezean, azken urtean elkartea gidatu duten pertsona berberak 2020an jarraitzeko erabakia hartu zen. Nemesio Zatarain eta Maite Iruretagoiena senar-emazteak dira horiek, hain zuzen. Zatarain lehendakariak argitu digu nola iritsi diren gaurko egoera bizitzera. “Orain zortzi urte sartu ginen zuzendaritzan; Jose Luis Crego lehendakariarekin lehenbiziko lauak egin genituen, eta ondorengo lau urtetako agintaldian, berriz, neu izan naiz buru. Sei lagunek osatu genuen lan-taldea hasieran, baina horietatik lauak ez utzi egin zuten, eta Maite eta biok geratu gara”.

Azken hilabeteetan adierazi zuten zuzendaritza uzteko asmoa biek, “nahikoa eman genuela esan genuen, eta ordua iritsi zela beste batzuek atzetik etor-

tzeko. Baina ez dirudi konpromisurako gogo askorik dagoenik. Jarraitzeko eta jarraitzeko eskatu digute bazkide batzuk azken asteetan, esanez elkartea ezin dela inolaz ere kudeatzailerik gabe utzi. Bada, zer egingo dugu! Aurtengoa pasako dugu nola edo hala, baina ez hortik aurrera”.

Bertxin elkartea ez da edonolako herri entitatea Andoainen. Bazkide kopuru handiena duen elkartea izateaz gain, makina bat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar, mila bazkide horiek mugiarazi nahian. Hamabi eu-

**IKASTARO ETA
TAILERRETAN 300
BAZKIDE DABILTZA,
ETA BATZARRERA
150 AGERTU ZIREN**

roko kuota ordaintzen dute bazkideek, eta horren truk, elkarteak hainbat ekitaldi eskaintzen dizkie. Kuotaz gain, Andoaingo Udalaren diru laguntza da bigarren finantziazio iturria elkar-tearentzat.

Ekintza ugariko elkartea

Joria da benetan Bertxin elkarteak urtean zehar eskaintzen duen ekintzen programa.

Ikasturte osoan pilates, gimnasia eta memoria tailerreko taldeak eta hitzorduak finkoak ditu, eta horietan 300 bat lagun mugitzen dira. Egun eta jai berezietan (emakumearen eguna, San Juanak, San Tomasak, Urte Zahar eguna...) hamaiketakoak eta txokolate jateak; urrian helduen asteari dagokion kultur astea; ibilaldi neurtuak; toka, mus eta tortilla txapelketak; lau irteera luze (aurten Portugal,

Irlanda Salou eta Benidormera) agentzia batekin elkarlanean...

Gainera, ekintza fisikoa eginez adineko pertsonentzat bideratutako “Ibili Andoain” ekimeneko antolaketa lanetan parte hartzen du Bertxinek, kontuan hartuta parte-hartzaile ugari elkarteko bazkide direla.

Maitek zehaztu duenez, “ekitaldiz beteriko programa hori gauzatzeko premiazkoa da bulego lana. Ia egunero azaldu beharra dago egoitzara, elkar-tearen martxa zintzo kudeatu nahi bada. Urte hasierako egunetan, adibidez, egundoko lana egoten da bazkide txartelak berritzen eta kuotak kobratzen. Lan bolumena ikusita, argi dago elkar-tearen martxa ezin dela utzi goizetik gauera, inork ez hartzeko”.

Esker oneko ardura

Bazkideak esker onekoak direla aitortu dute biek. “Orokorrean bazkideek badakite baloratzen zenbateko lana dagoen atzean, eta eskertzen dizute. Egia da, leku guztietan bezala, hemen ere badagoela bat edo beste ekarpenik gabeko kritikak egiten dituenen”. Zatarainek gehitu duenez, “horiek min eman diezaioke edonori eta etsia hartzera bultzatu. Baina entzungor egiten ikasi beharra dago, ez dago beste erremediorik”.

Aldian aldiko ekintzetan jendea laguntzera azaldu ohi da, eta horri esker eramaten dira aurrera. “Sukalderako dela, zerbitzatzeko dela eta beste egin-kizunetarako dela, jendea gerturatzen da laguntza eskainiz. Denen artean gauzak errazago antolatzen direla argi dago”.

Horrelako elkar-te batean inplikatzera eramaten zaituen arrazoien artean, Maitek lanak hartzeko beldurrik eza eta sozializatzeko gogo aipatu ditu batik bat. “Bizitza honetan ardurak edukitzea eta jendartearen ibiltzeko aitzakiak edukitzea beti da ona. Hori bai, denboran aurrera, obligazioa nekagarria bihurtu daiteke. Eta gure adinean, gehiago”.

**ZUZENDARITZAK BERE
ARDURAK UZTEKO
ASMOA DU, BAINA
EZ DU ORAINDIK
ORDEZKORIK TOPATU**

Biak ere aitortu dute eskuza-balik hartuko dutela lanerako borondatea daukan edonor, “jakina, prest gaude erraztasuna guztiak eskaintzeko eta urte hauetan ikasi dugun guztia erakusteko”.

Eredu aldaketa

Ez dago esan beharrik nola ari den aldatzen erretiratu eta pentsiodunaren profila azken urteetan. Gizartean, giza sektore hori gero eta gutxiago identifikatzen da goizak eta arratsaldeak jubilatuen etxean karten jokoan igarotzearekin, eta gero eta gehiago kultur formazio handiagoa jaso ondoren erretiroko aisialdia irakurritz, mendi txangoak eginez, pasiatuz... egitearekin. “Aldatzen ari dira, bai, azken aldian, 65 urte beteta edo lehenago erretiroa hartu eta elkartean bazkide egin diren askoren ohiturak eta mentalitateak. Eta horiek, jubilatuen egoitzara bakarrik etortzen dira ikastaro edo irteera jakinetan parte hartzeko asmoz”.

Nolanahi ere, eskema zaharrek oraindik ere uste baino gehiago irauten dute, Zatarain eta Iruretagoienaren ustetan. “Egunero bete egiten dira jubilatuen tabernako mahai guztiak. Aisialdiaz gozatzeko modu horrek segitzen du, jokoan distraitzear gain, etxeko bakartasunetik irten eta jendearekin tertulian aritzeko modua delako”.

Egunero erabiltzen duten kideei begira, azpiegitura mailako berrikuntza bat aipatu beharra dago. Udala komunak berritzen ari da, irisgarritasun eta mugikortasun irizpide berriak kontutan hartuta.

Euskara, eskas

Aspaldia zabaldua dagoen kontua da Andoaingo jubilatuen etxean euskara gutxi entzuten dela. “Horixe da errealitatea. Tabernan goiza edo arratsaldea igarotzen duten hamarretik bederatzi erdalduak dira. Eta ez dakigu zergatik izan ote den horrela beti Andoainen. Euskaldunok ere ibiltzen gara, ikastaro eta ekintza zehatzetan batez ere, baina badakizu, edukazio onaren izenean euskaldunok barneratuta daukagun hizkuntza jarrera hori, gurean ere erreplikatzeko da; alegia, tartean euskaraz ulertzen ez duen bat edukitzea nahikoa zaigula erderara jotzeko”.

"Andoain Elkarlanean" egitasmoaren aurkezpena

Andoaingo Udal gobernu taldeak sei bilera deitu ditu, agintaldi plana eta Udal aurrekontua aurkezteko. Bi atal nagusi horiez gain, auzotarrei galde-erreguen tartean parte hartzeko aukera ematen diete. Datorren astean hiru bilera deitu dituzte

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hasteko eta behin, Maider Lainez alkateak Basteron egin zuten lehen bileran 8 ildo estrategikoak aurkeztu zituen. Nabarmendu zituen egitasmoen artean hauek: Gazteria plana aurrera eramatea, gizarte-babeseko zerbitzuen etengabeko hobekuntza, degradaturiko eremuen birsortzea eta hirigintza arloko garapenak sustatzea, eskualdeko garapen agentzia aktibatzea, Leitzaranek Parke Natural izendapena eskuratzeko lan egitea, eraikin publikoetan energia berritzagarriak txertatzea, Udalerrian integrazioaren alde egitea, andoaindarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko lan egitea eta andoaindarren artean bakean eta bizikidetzan aurrera egitea.

Udal aurrekontuaren aurkezpena

Arlo bakoitzeko zinegotziak bere ardurapeko sailaren aurkezpena egin zuten. Laburbilduz:

- Hirigintza (Verdasco, PSE-EE): partida handienak azterlanetara bideratuko direla adierazi zuen, baita Rikardo Arregi eta Doktor Huitzi lotzen dituen biribilgunea eraikitza ere.
- Zerbitzuak, Enplegua (Izagirre, EAJ-PNV): Lorategien mante-



Arregi, Parron, izagirre, Lainez, Verdasco eta Romero Udal ordezkariak, Basteron. AIURRI

nimendurako apustu argia egin zuen. Mimendiko aldapa hobetzeko egitasmoa aurkeztu zuen. Enpleguan gazte enplegua sustatzeko eta iraupen luzeko langabezia saihesteko egitasmoak iragarri zituen.

- Berdintasuna (Romero, PSE-EE): Udal jarduera osoa berdintasun politikak bideratzeko konpromisoa agertu zuen. Besteak beste, III. Berdintasun plana lantzeko egitasmoa iragarri du.
- Kirola (Mendo, PSE-EE): Kiroldegiko zerbitzuak emateko plegua aterata, kiroldegia handitzea izango da erronka nagusia.

• Euskara (Arregi, EAJ-PNV): Hiru lan ildo aipatu zituen: Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien ildo berriarekin jarraitzea, euskara ikasteko laguntzak ematen jarraitzea eta Garagorrienea egitasmoa sustatzea.

• Gizarte Zerbitzuak (Lainez, PSE-EE): Etxez etxeko arreta zerbitzua, adinekoentzat zerbitzu gida eta eguneko arreta zerbitzua hobetzea izan ziren alkateak nabarmendu dituen ildo nagusiak.

Hirugarren atala galde-erreguentzat utzi zuten. Kronika, luze eta zabal, Aiurri.eus gunean irakurri daiteke.



Herri konpartsa, iazko edizioan. AIURRI

Kaldereroen etorrera Andoaingo herrigunera

Kaldereroen usadioak bi hitzordu izango ditu asteburu honetan, ostiralean eta larunbatean

Xabier Lasa ANDOAIN

Ondarreta ikastetxeko irakasle, ikasle eta gurasoek kalderero txikien konpartsa antolatuko dute, ostiral honetarako. Arratsaldeko 15:00etatik aurrera ikastetxeko jolastokitik abiatu eta, Kale Nagusia zeharkatu ostean, Zumea-iraino iritsiko dira. Berriro ikastetxerako itzulera egingo dute, eta han kanpaldia zabalduko dute; merienda goxoa ziurtatuta daukate guztiek ere. Ekitaldian zehar, zartagi jotzaileek Gora Kaletxiki txarangaren laguntza izango dute.

Kalejira larunbat arratsaldean

Larunbatean Kaldereroen herri konpartsa irtengo da. Ontza elkartean bildu ostean, Juan Bataiatzaile Zaharren Egoitzan ohiko geldialdia egingo dute. Ondoren, Goikoplazara igoko dira; udal ordezkariak bertan izango dituzte, harrera egiteko.

Zingaroen erreginek, Unai Ormaetxea eta Ion Beloki, udal-letxeko balkoitik tradiziozko hitzaldia egingo dute. Ohi duten eran, gogoan hartuko dituzte Andoainen urtean zehar gertatu diren zenbait gertakizun; kritikarako eta ziria sartzeko tartea hartuko dute.

Kanpaldia desegin, eta bideari ekingo diote berriro; Kale Nagusia zeharkatuz Zumea plazara iritsiko dira. Geroxeago, parte-hartzaileek itzulera bidea hartuko dute, eta Ontzan afari baten inguruan jaiarekin jarraituko dute. Afarirako izena ematea: 679043812 (Jexux).

OSTIRALEAN ONDARRETA IKASTETXEA, ETA LARUNBATEAN HERRI KONPARTSA

Pagazaurtundua gogoan

ETak hil zuela 17 urte bete direnean, Andoaingo PSE-EEK gogoan hartu zuen larunbatean. Egungo zinegotzi taldeaz gain, herriko buruzagi ohi asko hurbildu ziren. Aiurri.eus gunean bideoa ikusgai dago. Biharamunean, senitartekoek bigarren omenaldia egin zioten. Ekitaldi horretara PPko eta Ciudadanos alderdiko buruzagi ugari hurbildu ziren.



AIURRI

Trenbide Sarea eta Udala

Eusko Trenbide Sareak eta Udalak Belkoain aldeko baserrietara ur emaria ziurtatzeko egitasmoa adostu dute. ETSk inguru hartako 13 baserrietara ur sare orokorrekin zuzenean lotzeko konpromisoa hartu du. Eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan, kalitatezko ura bermatuko zaiela adierazi du Marijose Izagirre Andoaingo Zerbitzu saileko zinegotziak.



Aitor Garitano eta Marijose Izagirre Andoaingo Udaletxearen atarian. UDALA



Josu Pagola Urnieta Artola Harategiko jokalaria. UKE

Itxaropenari eusteko garaipen garrantzitsua

ESKUBALOIA Urnieta Artola Harategia mailari eusteko lehian sartu da berriro, garaipena lortu ostean

Mikel Arberas URNIETA

18 jardunaldiren ostean Urnieta Artola Harategia taldeak garaipena lortu du etxetik kanpo. Amesten jarraitzeko garaipena izan da asteburuan jokaturakoa, eta mailari eusteko lehian sartu dira bete-betean. Nabarmenki irabazi zuten urnietarrek Ugera Eskubaloia taldearen aurka, 27-38. Guztira zortzi puntu lortu dituzte eta maila eustetik puntu batera gerturatzea lortu dute.

Urnietarrek gogotsu atera ziren pista asko baitzegoen joan; erasoan nabarmenki gehiago zirela erakutsi zuten eta abantaila handia lortu zuten. Defentsan ere sendo aritu zen taldea eta aurkariak ezin izan zuten askorik egin. Hortaz, atse-denaldira 8 goleko aldearekin ailegatu ziren. Dena dela, bigarren zatian ere intentsitate handiarekin jokatu zuten eta garaipen garrantzitsua lortu zuten.

pen garrantzitsua lortu zuten. Lortu ezinbestekoa izan zen puntu garrantzitsuak lortzeko eta taldea aurrera bultzatzeko.

Asteburu kaskarra senior mailako emakumezkoentzat

Emakumezkoen senior mailako taldeak galdu egin zuen asteburuan Ereintza Beissier taldearen aurka, 21-12. Bueltatutako zailtasunekin hasi dute urnietarrek; bigarren postuan jarraitzen duten arren, arriskuan egon liteke sailkapenean atzetik datorren aurkaria soilik bi puntura da-goelako.

Aloña Mendiren garaipena Leizarangoen aurka

Andoingo mutilen taldeak 30-29 galdu zuen Oñatin. Partida ona jokatu zuten, baina azken unean oñatiarrak gailendu ziren. Larunbat honetan etxean jokatu dute, Egiaren aurka (17:30).

Zurrit saskibaloia taldea

SASKIBALOIA Ugaitz Alonsok eta Unai Rodriguezek iaz sortu zuten Zurrit saskibaloia taldea, beste kide batekin batera. Egun, hamar jokalarik osatzen dute taldea, baina datozen urteetan jende gehiago batzea espero dute



Zurrit saskibaloia taldea Alluralde kiroldegian. ZURRUT

Mikel Arberas ANDOAIN

Andoingo Zurrit saskibaloia taldeko Ugaitz Alonsorekin eta Unai Rodriguezekin elkartu gara pasa den denboraldia sortu zen taldeari buruz hitz egiteko. Biak Ganbara Saskibaloia Kirol Taldeko jokalariek ziren, eta iaz senior mailako taldea osatu ez zenez, eurak talde berria sortzea erabaki zuten.

Zergatik sortu duzue senior mailako saskibaloia taldea?

Saskibaloian jokatzeko gogo genuen eta laupabost kide elkartu ginen talde berri bat sortzeko asmoarekin. Esan beharra dago, Andoain saskibaloiko senior talde gabe geldituko zela, baina guk jokatzeko jarraitu nahi genuen; eta jokatzeko jarraitzeko modu bakarra talde berri bat sortzea zela pentsatu genuen.

Deigarria da Zurrit izena. Nondik dator?

Talde kide baten osabaren kuadrillaren izena da Zurrit; taldearentzako izen egokia zela pentsatu genuen. Gainera, "zurru" ondo egiten dugun zerbait da.

Denboraldiaren hasieran zein aurreikuspen zenituzten? Egun, aldatu egin dira taldeko helburuak?

Denboraldi hasierako aurreikuspenak hobeak ziren orain ditugunak baino. Hamar jokari gara taldean eta zailtasunak

ditugu guztiok elkartzeko. Esaterako, denboraldiaren hasieran, taldean lesio asko gertatu ziren; horrez gain, taldekide batzuek lan egiten dute, eta horietako bat gurasoa da. Ez hori bakarrik, taldean jokari berriak ditugu, beraz, nabari da elkarren artean oraindik komunikazio falta dagoela jokatzeko dugunean. Denborak aurrera egin ahal taldeko komunikazioa hobetu egingo da.

Esanak esan, ez dugu etsiko. Oraindik, zortzi partida inguru gelditzen dira eta guztia ematen saiatuko gara, azken aurrenak goaz, baina postuetan aurrera egin dezakegu. Gutxinaka-gutxinaka.

Denboraldi honetan aukerarik baduzue mailaz igotzeko?

Egun, play-offetan gaude eta gainontzeko taldeak baino partida bat gutxiago jokatu dugu. Egia da postu batzuek gorago egotea espero genuela, baina lehenago esan bezala partida asko geratzen dira eta aurrera egiten saiatuko gara. Egia da ere zorte txarra eduki dugula zenbait partidatan.

Taldea nola kudeatzen duzue eta ardurak nola banatzen dituzue?

Taldea hiru lagunen artean sortu genuela esan daiteke, eta bakoitzak ahal duena egiten du. Bereziki Ugaitzek, Aratzek eta

hirurok kudeatzen dugu kluba, paperak eta beharrezko gauzak. Horrez gain, laugarren kide bat sare sozialen gestioaz arduratzen da.

Zurrit taldea ezagutzen ez dutenei zer esango zeniekete?

Ez gara NBAko jokari profesionalak, baina polita izan liteke jendea partidak ikustera gerturatzea eta giroa sortzea. Adibidez, Alegin talde berria sortu da eta partiduro giro bikaina sortzen da harmailetan. Jendea gerturatzea gustatuko litzaiguke.

Eroso entrenatzeko zailtasunak dituztela adierazi dute

"Taldea askok entrenatzen dugu areto nagusian eta, beraz, ozta-ozta sartzen gara. Esaterako, bi orduz soilik entrenatzen dugu. Horrekin zera esan nahi dugu, beste zenbait talderekin hitz egin ondoren, behar bat ikusten dugu: Entrenatzeko leku berri bat sortzeko beharra.

Geure taldeko saskiak ezin ditugu nahi bezala erabili, zailtasunak ditugulako leku batetik bestera mugitzea. Hortaz, saskibaloia taldeen egoera hobetzeko eskatu nahiko genuke.

Egoera honekin urteak daromatxagu eta ez da erraza entrenamendu onak egitea egoera honetan".



Urnieta
udala

Denboraldi berrirako prest

TXIRRINDULARITZA Taldeko argazkiak ateratzearekin batera, denboraldi berriari ekingo diotela iragarri du Andoaingo taldeak. Otsailaren azken asteburuan ekingo diote. Eskolartekoan eta infantil, kadete eta jubenil mailatan gogotsu aritzeko prest daude



ANDOAINO TXIRRINDULARI ESKOLA, INFANTIL MAILA: Ixiar Alkain, Izaro Etxarri, Peru Sarasola, Markel Villegas, Imanol Lertxundi, Xuhar Etxezarreta, Oihan Mitxelena. Zuzendariak: Jose Luis Barberena eta Pedro de Godos. A.T.E.



ANDOAINO TXIRRINDULARI ESKOLA, KADETE MAILA: Iker Atxaga Robles, Iker Balbas, Iker Ugartemendia, Ibai Vela, Markel Etxarri, Ganix Ormazabal eta Ekhi Arrieta. Zuzendariak: Aitzol Zuriarrain, Jon Mikel Mujika eta Iñaki Arin. A.T.E.



ANDOAINO TXIRRINDULARI ESKOLA, JUBENIL MAILA: Arene Etxarri, Xabat Alonso, Ibai Omeñaka, Peru Alkain, Iker Atxaga Galarza, Ekain Mitxelena, Unai Galarza eta Mikel Goikoetxea. Zuzendariak: Koldo Velasco eta Jon Goikoetxea. A.T.E.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
Ordizia-Euskalduna	3-0

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Euskalduna-Bergara / Lar, 15

NESKAK, O. ERREGIONALA	
Urola-Urnieta	1-2

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Urnieta-Bergara / Lar, 15

ERREGIONAL PREFERENTE	
Urnieta-Roteta	1-2

ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA	
Euskalduna-Lengokoak	4-0

SAILKAPENA

1	Intxurre	6 puntu
2	Euskalduna	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

Atsedena Euskalduna

PREFERENTE NESKAK, IGO. FAS	
Amaikak Bat-Euskalduna	5-0

SAILKAPENA

1	Amaikak Bat	7 puntu
4	Euskalduna	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

20:00 Euskalduna-Oiartzun / Lar, 15

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA	
Touring-Euskalduna	4-1

SAILKAPENA

1	Euskalduna	42 puntu
2	Touring	39 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Euskalduna-Beti Gazte / Lar, 15

JUBENIL MAILA, KOPA	
Sporting de Herrera-Urnieta	0-8
Euskalduna-Kostkas	1-0

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Urnieta-Hernani / Lar, 15

KADETEAK, IGOERA FASEA	
Euskalduna-Urki	7-1

SAILKAPENA

1	Lazkao	18 puntu
2	Euskalduna	14 puntu

KADETE, KOPA

Ekintza-Urnieta	4-5
Urnieta "A"-Usurbil	2-1
Ostadar-Euskalduna	2-1

SAILKAPENA (5. MULTZOA)

1	Zarautz	12 puntu
3	Urnieta	8 puntu

SAILKAPENA (7. MULTZOA)

1	Urnieta	13 puntu
5	Euskalduna	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Urnieta-Martutene / Lar, 15

12:30 Euskalduna-Danena / Lar, 15

KADETE NESKAK	
Urnieta-Astigarraga	0-4

ASTEBURUKO PARTIDA

11:00 Euskalduna-Tolosa / Lar, 15

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK	
Ugeraga-Urnieta	27-38

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Urnieta-Corazonistas / Lar, 15

GIPUZKOA, SENIOR NESKAK	
Ereintza-Urnieta	21-12

SAILKAPENA

1	Egia	28 puntu
2	Urnieta	22 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Urnieta-Pulpo / Ig, 16

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK	
Aloña Mendi-Leizaran	33-29

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Leizaran-Egia / Lar, 15

JUBENIL MUTILAK GI. TROFEOA	
Egia-Urnieta	35-25

ASTEBURUKO PARTIDA

10:30 Urnieta-Elgoibar / Ig, 16

JUBENIL NESKAK GI. TROFEOA	
Leizaran-Pulpo	23-21

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK	
Leizaran Horia-Egia	17-20

GIPUZKOA, KADETE NESKAK	
Leizaran Horia-Urnieta I.M	22-18

SAILKAPENA

4	Leizaran Horia	6 puntu
7	Urnieta I.M	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:00 Urnieta I.M-Egia / Lar, 15

KADETE MUTILAK GI. TROFEOA	
Urnieta-Amenabar	22-27
Leizaran-Pulpo	36-32

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Leizaran-Amenabar / Lar, 15

ARETO FUTBOLA

LIGA, 1. JARDUNALDIA	
Euskalduna-Herrikide	2-1

SAILKAPENA

1	Oiartzun	38 puntu
5	Euskalduna	26 puntu

SASKIBALOIA

SENIOR MAILA 3. MAILA	
Zurrut-Oiartzun	55-74

SAILKAPENA

1	Take Coach	20 puntu
8	Zurrut S.K.	13 puntu

JUBENIL MAILA	
Aratz-Ganbara	61-31

SAILKAPENA

1	Oiarso	4 puntu
10	Ganbara	2 puntu

KADETE MAILA	
Ganbara-Easo Arano	44-58

SAILKAPENA

1	Antigua Luberrri A	20 puntu
10	Ganbara	11 puntu

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 13

ANDOAIN Bilera

Udalak sustaturikoa, "Andoain elkarlanean" egitasmoa azaltzeko. Goikoplaza, Plazaola, Extremadura kalea, Galardi eta Arrate inguruetan bizi diren herrikideei zuzenduta. **18:30 La Salle Berrozpe ikastetxea.**

ANDOAIN Sari banaketa

'Andoain Laburrean' sari banaketa ekitaldia. **19:00 Bastero.**

ANDOAIN Erakusketa

"Ezlekuak", Maritzalarren artelanak otsailaren 29ra arte ikusgai. **Ohiko ordutegia Bastero.**

ANDOAIN Mintzalagunak

Euskararen sustapenean aritzeko deialdia zabalik dago. Euskaldunak behar dira, euskara ikasteko bidean trebatzaile izan daitezen. Informazioa udaletxean edota AEK euskaltegian. **Izen-ematea zabalik.**

OSTIRALA 14

ANDOAIN Kaldereroak

Ondarreta ikastetxeko eskutik, Gora Kaletxiki txarangak lagunduta. **Ondarreta ikastetxetik abiatuta.**

URNIETA Ikuskizuna

Magalekoen ikuskizuna: "Super H hontz zuriaren lurraldean". Ondoren, txokolate jate solidarioa. Sarrerak ikastetxeko idazkaritzan eskuragarri. Telefonoa: 943 551 789. **17:30, 19:00 Sarobe.**

URNIETA Diaporama lehiaketa

Nahikari Sanchezek unibertsitateko bi ikaskiderekin batera Tailandiara eta Filipinara egindako bidaiaren diaporama eskainiko du. **18:30 Lekaio. Doan.**

LARUNBATA 15

ANDOAIN Kaldereroak

Herri konpartsa kalez kale ibiliko da. San Juan bataiatzailetik Goikoplazara, eta bertan hitzaldia eskaini eta gero Zumea plaza aldera abiatuko dira. **17:00 Ontza elkartetik abiatuta.**



Kaldereroen etorrera, iazko edizioan. AIURRI

ANDOAIN Kaldereroen etorrera, bi egun ezberdinetan

Asteburuan Hungariako kaldereroak herrian barrena ibiliko dira. **Otsailak 14, ostirala. Ondarreta ikastetxearen eskutik. Otsailak 15, larunbata. Kaldereroak. 17:00 Ontza elkarte.**

ANDOAIN Antzerkia

Artedrama, Axut eta Dejabu konpainien "Zaldi urdina" antzezlanak arrakasta handiz eskaintzen ari dira Euskal Herrian barrena. Drogak, iragan gatazkatsua... **20:30 Bastero. 12 euro. Euskaraz.**

ANDOAIN Kontzertua

Saia Goait eta Lamiak zuzenean. **22:00 Gaztetxea.**

IGANDEA 16

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Giza gorputzaren erdigunera bidaia". **17:00 Bastero.**

URNIETA Haur ikuskizuna

"Denboraren taupadak". **18:00 Sarobe. 3 euro. Euskaraz.**

OSTIRALA 21

URNIETA Diaporama lehiaketa

Olaia Iraolak eta Andrea Isasak 163 egunetan zehar Argentina, Txile, Bolivia, Peru eta Kolonbian barrena egindako bidaia azalduko dute. **18:30 Lekaio. Doan.**

ASTELEHENA 17

ANDOAIN Bilera

Udalak sustaturikoa, "Andoain elkarlanean" egitasmoa azaltzeko. Calonge, Sorabilla, Goiburu, Buruntza eta Leizotzeko inguruetan bizi diren herrikideei zuzenduta. **18:30 Urigain.**

ASTEARTEA 18

ANDOAIN Bilera

Udalak sustaturikoa, "Andoain elkarlanean" egitasmoa azaltzeko. Kaleberria, Zumea, Olagain, Aingurasutegi, Belabi eta Txitibar inguruetan bizi diren herrikideei zuzenduta. **18:30 Bastero.**

ASTEAZKENA 19

ANDOAIN Bilera

Udalak sustaturikoa, "Andoain elkarlanean" azaltzeko. Bazkardo, Ama Kandida, Kaletxiki, Arantzibia inguruetan bizi direnei zuzenduta. **18:30 Aita Larramendi ikastola.**

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Mujercitas

Igandea, 16. 19:30.
Astelena, 17.
19:30, 22:00.
Carmen

Veronako Arian eskainitako opera. Astearte, 18. 20:15.
Jojo Rabbit
Larunbata, 22.
19:30, 22:00.
Igandea, 23. 19:30.
Astelena, 24.
19:30, 22:00.



SINOPSISIA



Mujercitas

Zuzendaria: Greta Gerwig. **Gidoia:** Louisa May Alcottetik idatzitako eleberrian oinarrituta. **Aktoreak:** Saoirse Ronan, Timothée Chalamet, Emma Watson... **Herrialdea:** AEB (2019). **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 135 min.

Oscar sarietarako 6 izendapen

Amy, Jo, Beth eta Meg nerabezaroan murgilduta dauden lau ahizpa dira. Amarekin Ipar Amerikan bizi dira, eta herrialdean pairatzen ari diren guda zibilaren zantzuak antzematen dituzte. Dohai bereziak dituzte arte

sorkuntzarako. Maitasuna zer den deskubrituko dute, eta baita senitartekoen arteko loturen garrantzia ere.

BAFTA, Urrezko globoak, Oscar sariak... urteko film aipatuenetako bat da "Little women" izenekoa.

Opera Basteroko pantaila handian

Bastero Kulturguneak operako obra sonatuenak pantailan ikusteko aukera eskaintzen du. Batzuetan zuzeneko emanaldiak

izan ohi dira, eta besteetan grabaturikoak. Datorren asteartean, 'Carmen' eskainiko dute. Eta, martxoan, 'Fidelio'.

Haur ikuskizunak, igande honetan

"Giza gorputzaren erdigunera bidaia".

17:00 Bastero. 4 euro.

Sinopsia: "Eta, ikasten dugun bitartean, pertsona baten barruan sartu eta abentura sinestezin bat bizitzeko bezain txikiak bagina? Ongi etorri gure gorputzetik bidaia bikain batera. Barne-zirkuitu sinestezina nola funtzionatzen duen ezagutzeko giza gorputzean murgilduko gara".

"Denboraren taupadak", Patata Tropikala.


18:00 Sarobe. 3 euro.

Sinopsia: "Odei fabrika zaharra dagoen tokira iritsi da. Zerbait arraroa gertatzen ari da... Guztiak haserre bizi dira! Zerbait kutsakorra da: hasieran helduak kutsatu ziren, ondoren gazteak eta azkenean haurrak ere kutsatu dira. Kalejira egitea bururatu zaie, arrazoiak ezagutzeko".

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Ane
Anek 5 urte beteko ditu otsailaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxeko partetik.



ANDOAIN
Jon Loiarde
Zorionak zure zortzigarren urtebetetzean! Kamiokada bat muxu jaso etxeko guztien partez!



ANDOAIN
Unax Lopetegi
Zatarain
14 urte beteko ditu hilaren 15ean. Zorionak Aner, Oinatzen eta etxeko partetik.



ANDOAIN
Ekhiñe Artano
Ekhiñe otsailaren 8an 6 urte bete zituen. Zorionak bihotza! Muxu potoloak etxeko partez!



ANDOAIN
Jon eta Ane
Jon eta Ane Urkiak, 9 urte beteko dituzte otsailaren 18 an. Zorionak bikote.

Deialdi ezberdinak martxan

Andoainen lehiaketa ezberdinak martxan daude. Inauteriei begira, maskara lehiaketa eta argazki lehiaketa. Udaberriari begira, Santa Krutz Jai Batzordetik datozen festetarako kartel lehiaketa antolatu du

SANTAKRUTZAK 2020 KARTEL LEHIAKETA

Oinarriak:

- Teknika librea da.
- Neurria: Din A-4 edo Din A-5.
- Ezinbestekoa da kartelean "Santa Krutz jaiak 20 (edo 2020)" esaldia azaltzea.
- Lanak aurkezteko: Ernaitza Liburudenda. Zumea kalea, Andoain.
- Lanak aurkezteko azken eguna: Martxoak 23. Lanarekin batera kartazal batean egilearen datuak txertatu behar dira.
- 150,00 euroko sari bakarria egongo da. Sarien irabazleak kartelari dagozkion jabego eskubideak Santa Krutz Jai Batzordeari emango dizkio.
- Lehiaketan parte hartzen dutenek ezinbestean onartuko dituzte baldintza hauek.

INAUTERIETAKO MASKARA LEHIAKETA

Oinarriak:

- Maskarak edozein materialez egin daitezke, beti ere aurpegiari egokitzuz.
- Gaia librea da.
- Begitako maskara aurkeztuz gero, nahitaez, aurpegia kope-taren erditik sudur azpiraino estaltzen dutenak izan behar-ko dute.
- Lanak Basteron aurkeztu beharko dira otsailaren 18an, 17:00etik 19:00ra.
- Aukeratutako Epaimahai batek baloratuko ditu aurkeztutako lanak.
- Sariak adinaren arabera banatuko dira: 2012-11, 2010-09, 2008-06.
- Sari banaketa Urigainen izan-go da otsailaren 20an, 18:00tan.

INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Oinarriak:

- Andoainen bizi eta lan egiten duten 14 urtetik gorakoek parte har dezakete.
- Gaia Andoaingo inauteriak dira, era librean.
- Lanak paperean edo digitalean aurkez daitezke. Koloretan edo txuribeltzean.
- Lanak martxoaren 12an aurkeztu behar dira Basteron. ordutegia: 10:30-13:00 / 16:30-19:30.
- Emailaz aurkez daitezke: kultura@andoain.eus. Gehienez ere, 8 megako tamainakoa.
- Partaide bakoitzak gehienez ere 4 argazki aurkez ditzake.
- Sari bakarria: 250 eurokoa.
- Saritutako lanaren jabetza Udalarrena izango da.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 15 eta igandea 16
MONFORT: Aita Larramendi, 26.
943 300 913 Andoain.

URNIETA

Larunbata 15 eta igandea 16
ALDABE: Perkaiztegi, 8.
943 336022 Hernani.

GAUEZ

URRUTIA-MARTIN: Etxeberría, 1.
Florida. 943 557 738 Hernani.



Datozen bi astelehenetan (otsailak 17 eta 24) egoitza berriko ateak zabalik izango dira, iluntzeko 19:00tik 20:00ra. Bazkideek federatu txartela jaso ahal izango dute. AIURRI

Zanpatuz elkartearen egoitza Errekalde kalean

Zanpatuz elkarteko kideek Udalak utzitako lokalaren irekiera ekitaldia antolatu zuten, astelehen iluntzean

Andoni Urbistondo URNIETA

Zanpatuz mendi elkarteak lokal berria ireki zuen astelehenean. Errekalde kaleko 1 zenbakian dago, aparkalekuaren parean. Mendi taldeko kideek tortilla batzuk eta sagardoa eman zituzten, federatu txartelak jasotzera etorri ziren bazkide eta herriko mendizaleei ongi etorria egiteko. 40 bat lagunek jaso zituzten euren txartelak, bazkide kopuru osoaren herena. Lokala otsaileko hurrengo bi astelehenetan ere irekita egongo da, iluntzeko 19:00tik 20:00ra, bazkideak bertatik pasa eta federatu txartela jaso dezaten. Denak banatzen ez badira, martxoako astelehenean batean lokala irekitzeko aukera aztertzen ari dira, txartel guztiak banatu arte.

Txartelez gain, 2020an egingo diren irteeren egutegia banatu zitzaizen bertaratutakoei. Irteera egunek gorabeheraren bat eduki

dezakete, baina normalean ez dira asko aldatuko. Elkarteak bazkide eta mendizaleei gogorazari nahi die edozein irteera proposamen ongi etorria izango dela. Proposamenak posta elektronikoan egin daitezke, info@zanpatuz.eus emailara idatziz. Mendi elkarteko kideek Errekalde kaleko lokalean egingo dituzte batzarrak, aurrerantzean. Bilera horietan eztabaidatu edota adosten diren erabakiak bazkide guztiei jakinaraziko zaizkie. Hurrengo irteera Candanchura izango da, hilaren 29an, eskia-tzera.

Oier Egañari eskertza

Lokala bilatzeko orduan zalan-tzaren bat daukanarentzat, atean Druc enpresako Oier Egañak egindako mendi taldearen logoa dago jarrita. Elkarteak Oier Egañak musutruk egin duen lana eskertu nahi du.



Datorren Aiurri astekarian: Mikel Alonso



Axeriak Zinko Bordako Mari Karmen, Elias eta Juan Antoniorekin. AIURRI

Harrera bikaina egin zieten Puska biltzaileei

Axerien Puska biltzearen usadioa Goiburu auzoan biziberritu zuten, aurreko larunbatean. Dantzariak inauterien izpiritua modu dibertigarri eta zirikatzailean ekarri zuten. Harrera ezin hobea izan zuten auzotarren artean

Xabier Lasa ANDOAIN

Aita Larramendik eta Iztuetak XVIII. mendeko idatzietan jaso zuten axeri dantzaren tradizioa. XXI. mendean indarrean da. Goiburu auzoko baserri eta etxeen ataritan Axeri Dantzaren zazpi dantza edo jokoak (Aitarrena, Zortzikoa, Orratzakoa, Korrika, Perra Jartzea, Borroka eta Dorrea) berriro zituzten,

arin-arin eta fandagoa dantza saioekin batera. Auzotarrek harrera ezin hobea eskaini zieten axeri dantzariari, hamaiketako goxoak prestatuz. Taldea goizean goiz Kale Nagusitik irteten, eta behetik gorako norabidean Goiburuko plazan amaitu zuten. Bidean, besteak beste, honako baserri eta etxeetara hurbildu ziren: Sagastiondo,

Sagastiberri eta Goiburupeko etxe-taldea, Gure Kabia, Joan-leitzaneaberri, Basogain, Etxe Txiki, Pagoeta, Sorleku, Oxtape, Oroitza, Zinkoborda...

Une barregarri ugari bizi izan zituzten axeriek, eta horietako bat Goiburuko golf zelaian gertatu zen. Bertan sartu eta dantza saioa egin zuten, golf jokalarien harridura eraginez.

Auzoko etxe eta baserri askotan



Axeriak Pagoetako Milagros Tejeria eta Txurikadiko Marixux Mujikarekin. AIURRI



Biltzaileek Julen Iantzi telebistako aurkezle sonatuaren 'bisita' izan zuten. AIURRI



San Juan eguneko dantzak errepikatu zituzten Goiburun. AIURRI

Otsailak 29, larunbata
HERNANIN, ORONA FUNDazioan

Bi saio:
• 1. saioa: 16:30ean
• 2. saioa: 18:30ean

DO BE RA
943 33 27 99
dobera@dobera.eus

SARRERAK SALGAI!

Sarrerak:
7 € + 3 € elkartearen laguntzarako
Gustira: 10 €

Non erosi?
HERNANI: Dobera - Kronikako bulegoan (Larramendi 11, behe)
ASTIGARRAGA: Merke azoka dendan (Kale Nagusia 33)
URNIETA: 2KN okindegian (Máximo Yurramendi 2)

ENE KANTAK
SATORJATOR
BIDAIA
LURRAREN BIHOTZERA